## ALDARRI OTSAK

*(Peru Leartza'koari)*

Ots, ots!
        Nora oa itsumustuka?
Ez ari jardun alperrik deadarka;
ez. Alperrik nekatuko aiz galdezka.
Ortzea geldi duk erantzuteka
ta lurrean ez duk biotzik izozteka.

Ots, ots!
        Ez aiz ezer!
Oiñaztarri lerro azkarrean idatzia
duk ire zorigaitzezko argi unia.
Erruki aut, erruki; gizajo tristia.
Galdua duk iretzako maitasuntegia.

Ots, ots!
        Seme kupidagarri!
Nundik ator, gauaren illunetik izan ezik?
Munduan zear oa eurekin ikaraturik,
larri-miñez, negar astunen bidetik;
illunpera, iraupen gabeko arnas otsetik.

*Otsalar*